

# t tipi t tapa


2003ko abenduaren 18a • XXIII. urtea



## Bai Euskarari akordioa Baztanen

03

Euskararen aldeko konpromiso zehatzak hartzeko garaia ailegatu dela uste dute Bihotz Unanua eta Mirentxu Goienetxe, akordioaren teknikariak.



## Larralde-Arraztoa ASPEn ikusmiran

29

Iñaki Larralde aurrelari lesakarrak eta Xabier Arraztoa Irurita-ko atzelariak profesionaletan aritzeko aurrekontratua sinatu dute ASPE enpresarekin.



# ORDOKI ALTZARIAK

## ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



Zatoz gure eskaintza ikustera



ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA



**KAXULA**



Sukaldeko tresna eta oparietan aukera haundia

Albistur 51 Lesaka (herriko sarreran) 948 637558

## DATUAK...

- **Bai Euskarari Akordioa** Baztanen Baztango gizartearen proiektu kolektiboa da, euskarari gizarte esparru guztietan bere lekua ematea eta herritarrei hizkuntza erabiltzeko aukerak handitzea helburu duena.
- **Bihotz Unanua elizondarra eta Mirentxu Goienetxe** amaiurtarra dira proiektuaren teknikariak.
- **Duela sei hilabete euskararen aldeko elkarte, talde eta erakunde ezberdinek sinatu zuten akordioa.**



Bihotz UNANUA-Mirentxu GOIENETXE *Bai Euskarari Baztanen*

ARGAZKIA: NEREA MARTIARENA

# «Euskararen aldeko konpromiso zehatzak hartzeko garaia ailegatu da»

Aitor AROTZENA

**Nola hasi zineten Bai Euskarari Akordioa Baztanen proiektua gauzatzeko lanean?**

Apirilean, proba batzuk egin ondotik, hasi ginen teknikari lanean, Euskalgintzaren beka baten bitartez. Lehenik zerrenda bat osatu genuen eta Baztango jendeari proiektua erakusten eta parte hartzera gonbidatu genuen. Gero, ekain hondarrean Baztango gizarteko euskararen aldeko elkarte, talde eta erakunde ezberdinek Bai Euskarari Akordioa Baztanen sinatu zuten. Akordioaren lehen urratsa plan estrategikoa egitea izan da: Baztango ahal den gizarte eragile gehienekin elkartzea euskararen egoeraren inguruan hausnar zezaten, hutsuneak identifikatuz, helburuak ezarri eta eginbideak proposatuz.

**Eta hausnarketa horren ondorioz, Baztanen euskara zer egoeratan dagoela uste duzue?**

Baztango eragileek egindako diagnosiak agerian uzten du Baztanek abiapuntu egoera ona duela, biztanleen %80 euskalduna baita. Baina euskarak ez du bere tokia gizarte-

**«Baztanek abiapuntu egoera ona du, biztanleen %80 euskalduna baita. Baina euskarak ez du bere tokia gizartearen alor guztietan, erdaraz aritzearen joera izan da»**

ren alor guztietan, alor ezberdinetan erdara hutsean aritzearen joera izan baita.

**Horren arabera, lau gizarte esparru bereizi ditu plan estrategikoa azterketak...**

Kirol, aisialdi eta eskolaz kanpoko esparruan euskaraz egiten den eskaintza handiagoa izateko beharra ikusten da, bereziki musika eskolan. Iiburutegian, antolatzen diren ikastaroetan eta bertzelako kultur jardueretan. Lan mundu eta enpresa esparruan, berriz, hutsune handiak detektatu dira, erabilera idatzian, batik bat. Gabeziak ere agertu dira euskarazko materiale eta baliabide teknikoetan eta langileen euskarazko prestakuntzan. Ostalaritza eta merkataritza esparruan, bertzelalde, urte anitzeko erdarazko joera da irauli behar

dena, euskarari bere tokia eta presentzia emateko denda errotuluetan, bezeroei ematen zaien menu zein kartetan, zerbitzu publiko horietan harremanak euskaraz izatea ahalbidetzen duten elementu idatzi nola ahozkoetan. Ostalaritza eta merkataritza erdaraz egitearen ohitura da gainditu behar den lehen traba. Zerbitzu orokor eta administrazio esparruan, udalean, osasun etxean, autoeskolatan, dentistan... zeregin teknikoetan euskararen erabilera urria da, eta ezinbertzekotzat jotzen dute euskarazko euskarri edo materialak izatea, bai eta kontratazioetan euskara jakitea kontuan hartzea.

**Orain arte, egoera zertan den aztertu eta eragileen sinadura jaso duzue. Hemendik aitzin, zer?**

Dauden hutsuneak detektatuta, gizartearen sektore ezberdinetan euskaraz egiteko aukera errealak handitzeko prozesua hasiko da Baztanen Bai Euskarari Akordioaren bidez. Baztango gizarte eragileen parte hartzea beharrezkoa da, bakoitzak bere egoeratik egiten ahal duena eginez eta konpromiso zehatzak hartuz.

## ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa:(+34) 948 63 11 88

Faxa:(+34) 948 63 12 91

ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Aitor Arotzena.

**Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.

**Kolaboratzaileak:** Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziri-etako Euskara Mankomunitatea, Male-rrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

### Elizondo-Aldude errepidea-erokeria!

Baztango udaletxeak, Elizondo eta Aldude lotuko dituen errepide berriaren egitasmoa abiatu du, Baileitik, Belaungo lepon barna joanen dena. Alta, Nafarroako Gobernuarekin izenpe-tutako hitzarmenean, bide baten moldatze eta hobetzeari buruz solasten dira, ez errepide berri baten egiteari buruz. Hortaz, gauza bat da onartu dena eta bertzea, egiten hasi direna, Hortik ondorioztatzen ahal da, errepide berri honek ez duela inongo babes legalik, lldo horretan, begibistakoa iduri du, egiten ari diren sos publiko-koen erabilera, ez dela bidezkoa.

Guzti hori larria bada, larriagoa da ustezko bidearen moldatze eta hobetzea justifikatzeko erabiltzen diren "arrazoiak". Erraten diren gauzak ez daude ikerketa bakar batean ere oinarrituak, ez da datu bakar bat ere aipatzen, ez da inongo diagnosirik. Hortaz, erraten diren gauzek, ez dute inongo funtsik, ez dira enpirikoak ez objektiboak ere, aldarri erretrikoak bertzerik ez dira. Gauzak horrela, onartezina da inguru baten xehatze eta hondatzea modu horretan egitea.

Inguru horrek, Baztango gainerako tokiek bezala, jasaten duen presioa ikaragarria da. Hor berean, Berdaitz, Zarkindegia, Iñartze, Irurita-barrengoko pista eta Be-artzundik Belaunerat doana atxematen ahal ditugu. Mendi guztiak pistaz tarratatuak ageri zaizkigu, azkeneko aldian

erran modu batez, Erdi-zen zundaketak egiteko ireki zen pista nagusietako bat halala uztea erabaki du udalak, orain errepide berria Belaunen barna.... Gainera hirigintza basatiaren ondorioak, azpiegitura egitasmoak, golf behagiak... Hau da, bizi behar dugun ingurua zentzurik gabe hondatuz, logika desarrollista eta antisozial baten arabera, inongo eztabaidarik gabe, de facto inposatzen ari zaiguna eta gure geroa bortizki baldintzatuko duena.

Kontutan hartuta gainera Izpegin barna Alduderat ordu erdi pastu-xean joaten ahal dela eta arrazoirik gabe, errepide berriak pagadi zoragarriak eta erreka zoko ikusgarriak xehatuko dituela; inguru malkar eta zarrak, aldiriberean basa eta zoragarriak direnak, eta Iruritarbarrengo errekatik Elizondo urez hornitzeko egitasmoa dagoela, errepide egitasmoa zentzugabekeri hutsa da.

**Joseba OTONDO (Elizondo).**

### Lesakako egoera anti-demokratikoa

Gutun honen bidez Lesakan ematen ari diren gertaera batzuen salaketa egitea, eta bide-nabar irakurlea jakinaren gainean jartzea dut helburu. Askotan iruditzen baitzait, Lesakako biztanleak (ni barne) ez gara gure herriko gai garrantzitsutaz jabetzen.

Lehenik eta behin udal barruko kontuak ai-

patu nahi nituzke. Haudeskundeak egin zirela sei hilabete pasa berri diren honetan, udalak herriaren zati handi bat baztertzen jarraitzen du, eta udala diodanean PNV eta ONIN alderdiez ari naiz, noski. Hasieratik argi zuten arren, hilabeteak pasa ahala estatu espainiarak ezker abertzalearen aurka diseinatutako apartheid politikoa praktikara eraman dute fin-fin. Adibide askotxo daude baina esanguratsuenak aipatzekotan, orain hilabeteko udalbatzan hitza ukatu, eta orain berri informazioa ez ematea erabaki dute Herria Aintzinerako zinegotzietan. Galdera piloa datorkit burura: zergatik horrelako jarrerak ilegalizazioaren aurka omen daudenen partetik? Herria ez al dute herritar guztiek eraikitzen? Non dago Oninek hain sutsuki defendatzen zuen demokrazia parte hartzailea? Eta egin behar zizuten zubi lanak? Zer ezkutatu nahi dute informazioa ukatuz?

Gauzak horrela herritarroki dagokigu horrelako portaerak salatzea eta berriro gerta ez daitezen ziurtatzea. Bertzela batzuen prepotentziarekin eta bertzeen isiltasun konplizearekin gure herriko egoera anti-demokratikoa areagotuz joango da. Oraingoan hitza eta informazioa kendu dizkigute, baina nork daki hurrengo zein izango den; agian Herriko Etxera sarrera debekatzeko?

Herriko Etxe barrenean Apartheid politikoa praktikara eramatean duten bitartean, kalean gertaerak bat bertzearen gaitetik heldu zaizkigu he-

rritarrei. Indar okupatzaileak isun ezberdinen bidez herritarroki dirua ebasten, lur eremuetan irregulartasunak, indar okupatzaileak tabernetan nahi duten moduan eta orduan sartzen jarraitzen dute, kultur etxearen afera, herriko preso eta oro har errepre-saliatekiko arduragabekeria, asilo zaharreko etxebizitzaren inguruko bilera zintzilik, etab... Gai hauetan eta bertze aunitzen inguruko jarraipena egin beharrean, ez ikusiarena kasu batzuetan eta erantzun eza bertzeetan dira nagusi. Aski da zuen zilborra begiratzeari! Herria denon artean eraiki behar dugu, herritar guztion artean!

Egoeraren berri eman ondoren, bukatzeko, Lesakako herriari ohartarazi nahi diot datozen hilabeteetan, joan zaizkigunetan bezala, gai hagit garrantzitsuen aurrean egongo garela, bai Lesakari dagokionez baita Euskal Herriari dagokionean ere. Horregatik Lesakako biztanle eta euskal herritar garen heitanean, orain arte baino erneago ibili beharko dugu denok. Apartheid politikoa, desinformazioa eta ezkutuko politika baitira nagusi Lesakako Herriko Etxean.

**Iban Maia Ormazabal (Herria Aintzinerako kidea)**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



AIZU 2003-12

«(Betiko geldituko al da Guardia Zibila Maxurrenean?)

Ez dakit. Herriak ez du kuartelik nahi, baina hor goikoek bai, eta aurrera egin dute. Ezin jakin nola bukatuko den».

«Askotan esaten da haragia txarra dela, baina nik bi aldiz jaten dut egunero eta oso ongi nago. Gezur asko dago hor tartean».

Inaxio PERURENA  
Leitzako harrijasotzailea  
AIZU 2003-12

«Errepideko txirrindularitza kirol matxista da, emakumeei kasu gutti egiten zaielako eta denen aldetik laguntza gutti daukatelako. Adibidez, badirudi meritu guttiago duela emakumeen Tourra irabaztea gizonena irabaztea baino. Mendi bizikletan aldeak tikiagoak dira».

Miriam BLAS  
Berako txirrindularia  
D.Navarra 2003-12-09

## • 11 GALDERA LABUR •

**Zein lanetan ateratzen zarete gehiago: teilatu, leiho edo alzarrietan?**

Denetarik piska bat.

**Gaztaina, haritz edo pinua saltzen da gehien?**

Hemen haritza gehien.

**Zer zur klase da errexena lantzeko?**

Gaztaina da goxoenetarik bat.

**Zergatik aurkeztu zinen Basetxerat?**

Esperientzia berri bat izateko.

**Zer eginarazi zizuten casting-ean?**

Zure burua aurkeztu eta kantu proba bat.

**Bota amets bat...**

Talde batean abestea.

**Neskak, ilehoriak edo beltzaranak?**

Beltzaranak nahiago.

**Oporretan, nora ganen zinateke gustura?**

Astia izanez gero, Keniarat.

**Zer afari goxo prestatuko zenioke zure bihotzeko azukre koxkorrari?**

Onddo tortilla eta solomilloa, hau delakoz niri ere gehien gustatzen zaidana.

**Butaneroek eta iturginek aunitz ligatzen dutenaren fama dute... eta zurginek?**

...Ez da gorki nabaritzen.

**Zein auto marka duzu gustokoen?**

Mercedes vito, bateren bat errateagatik.



**Joxemi BENGOTXEA**

*Urdazubiko zurgina*

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujandada' Mazzoa  
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK



## Helbide berria:

Zalain auzoan,  
Aceralia fabrikaren parean  
© 948 63 02 40 • Mug.: 627 622333  
**BERA**

**DROGUERIA  
MOLINERO**

**PINTURAK**  
DROGERIA

- Esmalteak
- Bernizak
- Lasurea urpintura
- Margo klase guziak

*2.000 kolore*  
*baino gehiago lortzen ahal duen makina*  
*10 minututan*  
*zuk nahi duzun kolorea*  
*Profesionalentzat prezio berezia*

## ERREPIDEAK

# Berrizaun eta Bera artean 121A bidea moldatzeko proiektua onartua

Azkeneko istripuak salatu ditu berriz ere Auzolan N-121A Ekimenak

## ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamentuak Igantzitik (65. kilometroa) Berako Saihesbidera bitartean N-121-A errepidea moldatzeko proiektu teknikoa onartu zuen azaroaren 28an.

Orain proiektua jendeurrean paratuko da, egitasmoak ukitzen dituen ondasun eta lurren zerrendarekin batera.

Proiektu honekin bide azkarra egin nahi da eta aurreratzeko karriak izanen ditu. Hiru metro terdiko zabalera izanen duten bi karril izanen ditu eta metro terdiko bide bazterra. Beharrezkoa den lekuetan, hiru metro terdiko berze karril bat ere izanen da. Horretarako, gaur eguneko errepidetik aparteko trazatua egin da. 9 kilometro izan beharrean 7,8 kilometro izanen ditu errepide zati berriak. Bidasoa erre-karen gainetik bederatzizubi egingen dira eta



ARTXIBOKOA

**Matxain inguruan egingen da lotura bat. Errepide berria gaur eguneko baino altuera handiagoan joanen da eta Bidasoa erre-karen gainean zubia egingen da (argazkia atera den leku ingurutik erre-kaz bertzalde ageri den Teilergi baserriaren gainkaldera).**

baita bi tunel ere, Bataundi mendian 425 metrokoa eta Amixelaieta mendian 274 metrokoa. Igantzi, Etxalar eta Matxaingo loturak ere egingen dira.

## Auzolan N-121A

Bertzalde, Auzolan N-121A Ekimenak be-

rriz ere salatu egin ditu azken asteetan errepide honetan gertaturiko istripu larriak. «*Herritarrek ezin dugu ulertu —dio Ekimenak— nola hartu daitezkeen neurriak istripuak gertatu ondoren soilik (haurren moduan) eta ez lehenagotik, jarrera inteli-*

*gente batek eskatzen duen moduan*». Auzolanen ustez, azken istripu mortala salagarriagoa da oraindik, jaiegun edo zubi luze batean gertatu izanagatik: «*Nor da kamioi handi horiek asteburuetan errepide honetan ibiltzearen erantzule?*».

## ARKUPEAK

## Urte akabailako besta abenduaren 19an egingen dute erretiratuek

### ttipi-ttapa

Urtero bezala, urte bukaerako besta eta bazkaria Donezteben egingen du aurten ere Arkupeak erretiratuen elkarteak, abenduaren 19an.

Eguerdiko 12:00etan Meza Nagusia izanen dute Doneztebe-ko elizan, aurten hil diren bazkideen oroimenean. Bertan, Egu-berrietako kanta batzuk abestuko dira eta bertsolariak ere arituko dira. Ondoren, solasaldiak egingen dira, aurten egindako ekitaldiak eta kontuak aztertuz, eta datorren urterako prestatu diren ekintzak eta aurrekontua aurkezteko. Bu-kaeran, agintarien solasak aditzeko modua izanen da. Ondotik, 14:00etan bazkaria izanen da kiroldegian, Moderno jatetxeak emana, beti bezala, menu bereziarekin.

**Alzuri**  
Sukalde tresneria eta opariak  
Landare eta loreak  
Tfnoa: 948 630 370  
BERA

**Lanchas**  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRIAK  
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

**bortzirUDI**  
BERA  
KARTELAK  
KAMISETAK  
BISERAK  
TXISKEROAK  
PLANOAK  
FOTOKOPIAK  
KOLORETAN  
INGURUAK  
ENKUADERNAZIOAK  
PLASTIFIKAZIOAK  
PAPERTEGIA  
NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI ETA DISEINUAREKIN  
Eztegara 26 behea  
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia - jatetxea sagardotegia

**ZJ**  
**Zalain**  
jatekua  
C/ Sagardotegia 14 • Tlf. 948 63 29 47  
Bera - Nafarroa

**BERA**

## Berako sarrera eta irteerak hobetzeko eskaera egin du Udalak

Bizilagunak Listirketan tunela egitearen alde agertu dira

**Amaia eta Ainhoa**

Duela denbora gutti obra publiko, Garraio eta Komunikazio Sailak Igantzi eta Bera artean bide lasterra egiteko proiektua, jendaurreko fasean dagoena, onartu du. Bide laster honek Berako bariantearen hasieran eragina izanen du. Egun Berak NA-121-Atik bi sarrera ditu: joan zen maiatzan moldatu zena, harrobiaren ondoan dagoena bata, eta bertzea barianteko tunelaren ondokoa. Bigarren sarrera hau, lehenengoa ez bezala, herriatik ateratzeko erabilzen da. Bide lasterra egin ezkeru udalak tunela ondoko irteera hori agitz arriskutsua izanen dela ikusten du eta horregatik obra horiek Igantzi eta Bera arteko bide laistera egiten direnean egitea eskatzen dio Gobernuari. Udalak harrobiaren ondoko bidean sarrera eta irteera berriak eraikitzea proposatzen dio Gobernuari, orain moldatuko den zatiaren bukaeran hain zuzen.

Bertzalde, Igantzi eta Bera arteko bide lasterraren proiektua erre-dakzio fasean zegoela gutti gora behera 30 bi-



ARGAZKIA: AMAIA ODRIOZOLA

Espainiako Fotografia eta Irudiaren Federazioak merituak lortzeko antolatutako 7. Lehiaketan, Martin Goikoetxearen lau argazki sarituak izan dira (erretratu bat, publizitatearen inguruko bertze bat eta sormeneko bi). Abenduaren 1, 2 eta 3an Segovian egindako lehiaketara zortzi argazki aurkeztu zituen denetara. 80ko puntuazioaren gainean 76 eta 78 puntu bitartean lortu ditu. Argazkian Dakarreko gizon bati egindako erretratu saritua ikus daiteke. Bertzalde, Federazioak aintzineko urteetan saritutako argazkiekin lehen liburua argitaratu du eta hor gizarte gaiekin lotutako **Goikoren** argazki bat ere agertzen da, 2001eko. Bukatzeko, **Goikok** ТТИП-ТТАРА aldizkariko irakurle guztiei eguberri onak pasatzea opa dizue. Zorionak!

zilagunek alegazioak egin zituzten beraien lur sailak eta baserriak erai-ki dituzten terrenoetan obrak eraginik izan ez dezan, izan ere trazatu berriaren bi aldetan geldituko bait lirake. Horrela, bizilagunak Listir-keta mendian 800 metroko tunela egitearen alde agertzen dira. Tu-

nelaren ipar ahoa harrobiaren ondoan ego-nik bizilagunen lurretan ez lukeela eraginik izan-go ikusten dute. Udala ere herriarren propo-samenaren aldekoa da.

**Mendi irteera**

Agerra mendi talde-ak abenduaren 21era-ko Bera-Goizueta ibilal-

dia antolatu du. Age-rratik atera behar due-narentzat, hitzordua 7:00etan Agerrako egoi-tzan izanen da eta Agi-natik atera behar due-narentzat 8:15etan. Oi-nez joan nahi ez due-nak autobusa izanen du 11:00etan. Izena ema-teko elkartera joan edo 948630362ra deitu.

**FLASH**

**Erakusketa**

Urtarrilaren 3a bitarte-an, Kultur Batzordeak antolatuta, Ilustratzaile-en Aretoa izeneko era-kusketa ikusi ahal izan-nen da astelehene-tik lar-unbatera 18:etatik 20:00eta Kultur Etxean. Bertan, azken mende laurdenean haur litera-turako liburuak ilustra-tu dituzten euskal irudi-gileen lanaren lagin tti-ki bat egonen da.

**Ipuin**

**Lehiaketaren sari banaketa**

Abenduaren 19an, or-tzilan, Gure Txokoa El-karteak antolatutako Ipuin Lehiaketaren sari banaketa izango da Kul-tur Etxeko erakusketa gelan arratsaldeko 18:00etan. Saritutako haur eta gaztetxoek be-raien ipuina irakurriko dute eta Jon Abriek Bor-tzirietako ahozko tradi-zioan jasotako ipuinak kontatuko ditu.

**Eguberriek begira**

Eguberriak hurbil direla eta hainbat ekitaldi izan-nen ditugu. Abendua-ren 22an, Berako musi-ka eskolako Gaboneta-ko Jaialdia burutuko da. 17:30etatik 18:00tara kalejira, trikixak, akor-deoia eta txistulariak ibiliko dira herrian ba-rrena eta 19:00etan pu-bliko guztiarentzako emanaldia eskeiniko du-te gaztetxoek. Aben-duaren 24ean Olentze-ro etorriko da eta 28an Kultur Etxean bertso saioa izanen da.

**Bizikleta Tailerra**  
 errepide, mendi, trekking  
 eta haurrendako bizikletak  
 Arropa eta osagarriak  
 Salmenta eta konponketa

Kanttonberri 1, bis • BERA  
 Fax - Tel: 948-631218

**Rafa**  
 600 819 640

**PINTURAS LEGUIA S.L.**  
 Eztegara 26, 2.C - BERA

**BAR Botxo OSTATUA**

© 948630052 • Zalain • BERA

## LESAKA

# Makukobordako behiak nagusitu ziren berriz ereazienda ferian

164azienda aurkeztu ziren plazan, gehienak zaldikoak

**Aitor AROTZENA**

Euriari, haizeari eta hotzari aurre eginez aspaldiko urteetako azienda kopuru handiena aurkeztu zen feria egunean, 164 buru. Konparazio batera, iaz 12 behi aurkeztu ziren eta aurten 20. Baina zaldikoe-tan izan zen alderik handiena, joan den urtean 52 ziren lekuan aurten 140 izan baitziren.

Behietan Makukobordako Luis Olaetxeak eraman zituen sari guziak. Holandesa arrazakorik ez zen plazartu, baina haragitako behiengatik eman ziren hiru sariak eta behi suizengatik eman ziren bertze hiruak Makukobordara joan ziren. Denerata 900 euro irabazi zituen saritan.

Zaldi aziendei dago-kienez, Jose Antonio Anduezak irabazi zituen lehendabiziko bi sariak eta Joseba Irigoienek hirugarrena. Azkenik, lau ahare aurkeztu ziren. Lehenbiziko saria Joseba Irigoienek eraman zuen eta bigarrena Zulangorroko Marcos Etxabidek.

Feria bezperako Merkatu Eguneko ajoarriero lehiaketak ere arrakasta izan zuen. Azken



ARGAZKIA: LEGARRA

**Beti Gazte elkarteak hitzarmena sinatu du Osasunarekin hurrengo bi urteetan elkarlanean aritzeko. Osasunaren izenean, Juan Pascual lehendakari ordea, zuzendaritza batzordeko Fernando Vera eta Jesus Corera teknikoa izan ziren. Beti Gazteren izenean, Salvador Igantzi presidentea eta zuzendaritza batzordeko Koldo Erkizia eta Jose Ignacio Goia izan ziren. Juan Fermin Mitxelena alkatea ere sinadura ekitaldian izan zen.**

urteetan hiruzpalau bikote aurkezten ziren eta aurten hamahiru izan dira. Horien artean, Kallaxako Kotte Igantzik eta Alejandro Ordokik prestatutako ajoarrieroari eman zioten lehendabiziko saria, Igantzi-ko Anuntzi Txoperena eta Maria Jesus Telletxeari bigarrena eta Irain eskolako Patxi Oteiza eta Juanjo Garrantxori hirugarrena.

## KULTURA

### Eguberrietako ospakizunetan Olentzerok leku berezia izanen du

Eguberriak bertan ditugu eta dagoeneko ikusten dira herriko haur eta neska-mutiko gazteak harat-honatean, olentzero eta jaiotza lehiaketetarako prestaketak egiten. Abenduaren 24ean, eguerdian egingen dira lehiaketa hauek plazan. Aitzinetik, zenbait olentzero auzoz auzo ibiliko dira eskean eta arratsaldean, lehiaketako irabazleak musika bandaren laguntzaz herriko karraketan barna ibiltzeko eskubidea izanen du. Historia luzea duen ikuskizun ederra!



**Olentzero lehiaketa ikusgarria suertatzen da.**

## FLASH

### Ferietako zozketak

Alde batetik zerria eta bertetik mariskada zozketatu zituzten herriko erakunde eta talde ezberdinek feria egunean. Zerria 0455 zenbakia-  
rentzat izan zen, eta Mar-  
ribi Gaztelumendiri ego-  
kitu zitzaion. Mariska-  
daren zenbaki saritua,  
berriz, Imanol Etxebe-  
rriak erosi zuen.

### Fermin Muguruza eta Kontrabanda Zambran

Urtarrilaren 3an kontzertua eskainiko du Fermin Muguruzak Kontrabanda taldearekin Zambran. 18:00etan haurrendako emanaldia egingen du eta 22:00etan kontzertua.

### EHNA

Euskal Herriko Nortasun Agiria tramitatu zen abenduaren 13 eta 14an Eskol-ttikin. Goiz-arratsaldean, hainbat herritar hurbildu zen, errodaren fotokopia eta hiru argazkirekin, agiria egin asmoz.

**ANA**  
Janariarena  
Bittoria 41 • 948 637518 • LESAKA

**NATURETXEA**  
Zifuri  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**IRU BIDE**  
ENBETEA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA

**BOBEKO**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa • LESAKA  
Tfnoa: 948 637826

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa: 948 627 514  
Behoko Plaza 8, LESAKA



## ETXALAR

# Azkeneko urtetan baino ia hiru aldiz uso gehiago aurten Usategietan: 92 dozena

Aurten 80 urte bete dituztenak omendu zituen Larraburua elkarteak

### Joseba eta Nerea

Azkeneko urtetan Usategietan harrautu-tako uso-kopurua ikusiz, urtetik urtera sasoi txarragoa izaten zela erraten ahal zen oker haundirik egin gabe. Eta urtetik urtera uso guttiago pasatzen zela larmendiko parajetatik ere bai. Hala ere, aurten badirudi suerte hobea izan dutela usazaleek, iaz baino 54 dozena gehiago harrautu baitituzte. 92 denetara (1.104 uso). Patxi Elizalde usazaleak erran digunez "hasiera mottela izan genuen. Urriaren 11a arte ez genuen apenas usorik harrautu eta ondotik ere arront gutti. Eguraldiak ez digu batere lagundu eta txabola barranean ordu gehiago pasatu ditugu saretan baino". Hala ere, egun

batez hagitz pasa handia izan zela eta dozena aunitz harrautu zizutuzela aipatu digu Elizalde: «Urriaren 25a izan zen. Sekulako uso aldia pasatu zen eta 30 dozena hartu genituen. Bertze umore batean paratu gintuen egun harek!». Balorazioa egiteko eskatu diogunean «positiboa, hagitz positiboa» erran digu Patxi. «Azkeneko urtetan genuen ratxa txarra hobetu digu aurten eta trabazuz gaitzek nahi-ko uso-sasoi ona izan dela erran behar da, aitzineko urtetakoekin konparatuz bederen».

Behin sasoi akaututakoan, urtero bezala, bertze herrietako usazaleekin bazkari ederraren bueltan bildu ziren joan den abenduaren 6an Donazarren.



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Lauretan hogeitun urte bete dituztenak omendu ditu Larraburua elkarteak.

Aitzinetik, Beorlegin bilkura egin zuten eta inguruko usategiekin batera egiten duten klasi-fikazioan hirugarrenak gelditu zirela Etxalarkoak erran digu Patxi. Beraz, ez da batere emaitza txarra.

### 80 urte bete dituztenei omenaldia

Xabierko San Franzisko nafar guzien zaindaria izateaz gain, Larraburua jubilatutako elkartekoa ere bada. Hori dela eta, abenduaren 3an elkarteko kideek beraien eguna ospatu zuten. Urtero bezala, eguna aurten hildakoen omenez emandako mezarekin hasi zuten, ondotik larraburuara joan ziren, bazkari eder batekin

egunari segida emateko, bertan bildu ziren 76 lagunak. Postrearen ondoren eman zioten hasiera omenaldiari. Hauek izan ziren aurten omendutakoak: Aldabeko Ramona Irisarri Organbide, Xaxireneako Jose Angel Tomasena Elizalde, Oiarburuko Pablo Goienetxe Irigoen, Elizaldegaraiako Teodora Alzuguren Iturria, Larraldeko Francisca Arburua Elizagoien, Doremekeniko Pakita Danboriena Etxeberria, Sarolaitako Rafael Olagari Danboriena eta Arantxipiko Miguel Delgado Lopez. Ez zuten denek hor egoterik izan eta falta zirenen ordeztu familia-koek hartu zuten orogarria. Eguna ongi akabatzeko dantzaldia izan

zuten. Zorionak omendu guzietan eta segi bizkor!

### Kontu kontalari emanaldiak

Joan den ortziraletan hasi ziren Etxalarko Guraso Elkartek udalaren laguntzaz antolatutako kontu kontalari emanaldiak. Lehenbiziko emanaldian Koldo Amestoy ipuin kontalari ezagunak "Biberdi" izeneko istorioa kontatu zuen eta ortziralean, abenduaren 19an, "Makilar-gi" izeneko eskainiko du 17:30etan Kultur Etxeko erakusgelan. Ipuina 8 urtetik goitiko haurrei zuzendua izanen da berexiki baina familia osoarentzako egokia dela erran digute Guraso Elkartekoek.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

TALLERES BERRIZAUN  
GASOLINERA LESAKA  
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA

**Gasola etxera eramaten dugu**

Tel. 948 63 74 60      31770 Lesaka (Nafarroa)

**ie Iriarte-Echandi, s.l.**

- Aholkularitza
- Artekartitza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

HERRIKO

PREZATU - JATETXEA

MANUEL TABERNA S.L. - BERRIZOIA  
Plaza - NAFARROA

## IGANTZI

# Eguberrietako kontzertua Pedro Tapia zenari eskainiko dio Abesbatzak

Heldu den larunbatean, abenduak 20, ilunabarreko meza ondotik izanen da

## Oskar TXOPERENA

Urtero bezala, Eguberri aitzineko larunbatean, kontzertua eskainiko dute Abesbatzak eta musika eskolan dauden haurrek. Aurtengo kontzertua berezia izanen da, urrian hildako Pedro Tapia kideari eskainiko baizaio ekitaldia. Altsasun eta Arraioitzen egonak dira azken asteotan kantatzen eta 28an Zegamara ere joatekoak dira, baina Abesbatzaren kideen erraetan, bertzeak gutxietsi gabe, herrikoa da ilusio gehienez prestatzen duten kontzertua, eta hauxe da hain zuzen omenalditarako aukeratu dutena. Seiren bat urte zeramatzan Pedrok Abesbatzan eta gaixotu zen arte ez zuen ia entsaio bakar bat ere hutsegiten. Hagitz gustokoa zuen kantatzea eta horrelaxe, kantatuz, omenduko dute bere ortziralero lagunek.

## Kultur Egunak

Ekitaldiz bete-beteak jo-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

**Kultur Egunetako bertze argazki aunitz izan zitezkeen egokiak oraingo ale honetan argitaratzeko, baina hauxe izanen da seguraski aurtengo partehartze zabala hobekien isladatzen duenetako bat. Azken eguneko arratsaldean futbito partida jokatu zuten bi taldeak ageri dira elkarrekin. Egun guzirako Biltoki Elkarteak prestatutako ekitaldiek —erakusketa, argazki proiektzioa, pioleta partidak, etab...- jende aunitz bilduarazi zuten Baratzondon eta plazan.**

an zaizkigu abenduaren 5etik 8ra bitarteko egunak. Ekitaldi guzietan harrera ona izan dute herritarrengan. Gauza aunitz eta ezberdina ikusi eta entzuteko aukera izan da: diaporama, antzerkia, haurrentzako jokoak eta asteleheneko kirolari bu-

ruzko eguna, denak txukuntasunez antolatua. Tartean, Nafarroako Gobernua antolatzen duen Udazkeneko Biraren barrenean, Jorge Sanchez kubatarraren kontzertua ere zegoen, Igantzin guttitan ikusten ahal den moduko kontzertua. Udaberri parte-

rako ere zerbait prestatzeko asmotan dabila Euskara Batzordea, baina horren berri emateko aukera geroago ere izanen dugu.

## Auzolana Erretorbaitan

Aunitz dira Erretorbaita edo Parrokiaren

etxean urte guzian egiten diren aktibitateak: musika ikastaroak, eskulanetakoak, etabar. Ehizturien Elkarteak bilerak egiteko eta Abesbatzak ere ortziralero entsaiatzeko erabiltzen dute. Etxearen teiatuak erreparoso behar zuela ikusita, bi talde hauetako 25 bat lagun elkartu ziren auzolanean molatzera azaroaren 22an, bertze zenbait herritarrekin batera. Lanean aritutako guziei abenduaren 2an Herriko Etxean egindako afari batekin eskertu zien Parrokiak euren laguntza.

## Mugako Errekarren garbiketa

Aspaldi honetan Mugako Erreka ingurua hagitx egoera txarrean egon da. Orain dela bizpahiru urtez geroztik Iri-sarriko bide sarreraren inguruan, San Juan Xarren ondoan, traste zaharrak eta zaborra botatzeko ohitura hartu du jendeak eta orain arte egoera penagarrian egon da. Lehengo egoerara itzultzeko itxaropenarekin bertako zabor guziaz bildu eta parajea garbitu zuen Udalak joan den astean eta zaborra inon ezin dela gogorazten duen kartelen bat paratzea ere ez dute baztertzuten. Orain denok paraje hori eta bertze guziaz errespetatzea bertzerik ez da falta.

**B** BERBIZIUN S.L.  
Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadorak  
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

**Alberto RETEGI**  
abokatua

Altzate 17 • BERA • © 948 630 763

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIK  
sukalderako altzariak  
ERAKUSKETA  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891  
Faxa: 948 637 511

## ARANTZA

# Olentzeroak eta tenoreko ekimenak prest urte xaharra agurtzeko

Joan den igandean, eskolako lagunek lau antzezlan taularatu zituzten jendaurrean

### Nerea ALTZURI

Tenore honetan egiten diren ekitaldiei so eginez, kontu aunitz ez da sobera aldatzen. Nahiz eta norberak urteari adio errateko modua bide batetik edo bertetik burutzen duen, Olentzeroak, eguberri kantak... orohar eguberri sasoiko egunak iragaten dira herrian ere. Herriko eskolako lagunek olentzeroak prest dituzte eta eskolaz kanpoko herritarrek eginkoak izanen ote diren ikusteke dago. Gainerakoan, oporren tenorea abitzear dute, batez ere irakaskuntza alorreko lagunek.

Baina eskolako ikasleek eta irakasleek ez dute oporraldia prestaturiko antzezlanak taularatu aurretik hartu. Joan den asteazkenean

eta igandean lau antzezlan aurkeztu zituzten jendaurrean. Asteartean Etxalar eta Igantziako eskolako enbaxerak egin zuten emanaldia; eta joan den igandean arratsaldean berriz, herriko enbaxerak.

Gisa berean, Bortzietako binakako txapelketaren gainekoak kontatu bagenizkizuen, orain, azaroaren 29an hasita, banakako III. lehiaketa martxan da. Ekaitza Elkartearen izenean, herriko gaztetxeek burubelarrari segitzen dute pilotan. Asteburuetan jokatu dituzte partidua eta herriko frontoian ere izan dira eta izanen dira norgehiagokak. Joan den igandean adibidez, goizez, bertan izan ziren partidua hamarretan hasita.



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

Nafarroako kantu txapelketako finala azaroaren 22an egin zen Bordatxo dantzalekuan. Hamasei bakarlari, bikote eta talde izan ziren finalistak, bi kanporaketa Etxarri Aranatzeko eta Zizurren egin ostean. Amaia Telletxeak ere esku hartu zuen finalisten artean. Bi alditan ateri zen eskenatokira: Iñaki Lopezekin eta Txari Eletearekin. Amaiak eta Iñakik, "Nire haurra" izeneko seska kanta eta kanta herrikoia kantatu zuten bi ahotsetara eta Oskar Estanga gitarjolearen musikarekin. Amaia eta Txari Olaguetarrak berriz, Beti Muga taldearen " Geldi " kantatu zuten. Ezagun da herriko gazte honen kantuzalatasuna tiki tikitik mantentzen dela. Herriko abesbatzan kantatzen hasiz geroztik, Ziorek, jolas tailerrak eta Sortzen ikasbatuaz proiektuetan kantari aritu da kantari lagunak lagun dituela.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Asteleheneetik ortzirralera, 9:00etatik 15:00etara  
 • Asteazkenean 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara  
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50  
 amaia@artekari.com

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 948 133328 Faxa: 948 133713  
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA  
 patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

**ALBERGIA JATETXEA**  
 © 948 634179  
**ARANTZA**

**J. RAMOS**  
 zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditudu  
 Tfnoa: 948 631 342 BERRA - Tfnoa: 948 637 173 LESAKA

## DONEZTEBE

# Juanito Oiartzabal mendizalea izanen da Errekak antolatutako Mendiaren Egunean

Abenduaren 21ean hainbat ekitaldi egingen dira

## ttipi-ttapa

Erreka kirol elkarteak, urtero bezala, Mendiaren Eguna antolatu du. Aurtan, igande honetan, abenduaren 21ean izanen da. Aurtan apustu garrantzitsua egin du Errekak, zortzi milako hamalau mendiak igan dituen Juanito Oiartzabal mendizale famatua izanen baita. Goiz-arratsaldez, ekitaldiz betea joanen da eguna. Goizeko 7:30etan mendi ateraldia egingen da. 12:30etan poteoa izanen da eta goiz guzian parapente erakustaldia izanen da. 14:30etan bazkaria egingen dute Casino elkartearen. Bazkalondoa lasai ederrean igaro ondotik, 19:00etan Juanito Oiartzabalen eskutik zine proiektzioa izanen



ARTXIBOKOA

Juanito Oiartzabalen «Los 14 ochomiles» filmea eskainiko da Mendiaren Egunean eta berari galderak egiteko modua izanen da.

da: «Los 14 ochomiles» filmea eskainiko du Leke-Eder zineman, sarreara librearekin. Proiektzioaren ondotik, galderak egiteko aukera izanen da.

## Eskubaloi talde nagusia pattal liga hasieran

Errekako mendi taldeak ohiko eguna antolatu baldin badu, ezin dugu erran elkarteko eskubaloi talde nagusiak ohiko liga hasiera egin duenik. Hau idazterakoan ez du partida bakar bat ere irabazi oraindik eta, noski, sailkapenaren zuloan sartu dago. Talde nagusiarekin batera, kadete mailako nesken eta mutikoen taldeek osatzen dute aurtan Errekako eskubaloiaren ordezkartza.

© 948631076 • BERA

**GAZTANDEGIA**

**LIZUN** Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**BELARRA**

OSTATUA  
JATETXEA

Amezitia karrika • DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 03 06

**PIKABEA**

harategia • urdaitegia  
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

**OBRA PROIEKTUAK**

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

**Javier Manterola**

TEKNIKO  
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

## KULTURA

# Maidar Ansa bakarleri aranoarrak irabazi zuen Kantu txapelketan

Urdangarinen ladanik kantua abestu zuen

### ttipi-ttapa

Maidar Ansa aranoarrak irabazi du, bakar-ka, Nafarroako XI. Euskal Kantu Txapelketako finala, azaroaren 23an Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan egin ekitaldian. Ansak Mikel Urdangarinen ladanik kantatu zuen.

Bikoteka, Aritz Ugaldede eta Iñigo Zabala agoiztarrek eraman zuten txapela, Pantxo eta Pelloren Txikia kantarekin. Taldeka, Lekunberriko Gabari taldea izan zen onena, epaimahaikoen iritziz, beraiek egindako Errotuko naiz kantuarengatik. Sormen sariak ere banatu ziren Donezteben. Hitzari aipamena Arizkurengo Gartxotek jaso zuen, Egunero kantarekin, eta melodiarik onenari aipamena Nabaskoizeko Iñigo Aspuzek jaso zuen, Horrela eman nahi dut bizitza kantuarengatik. Pello Zabala orbaiztarrak, azkenik, bigarren saria jaso zuen, bakarka, Pello Zabalaren Sentitu nahi zaitut kantuarekin, eta berak jaso zituen ere sormenari bigarren sariak. Bordatxo bete egin zen kantariak entzuteko, eta giro ona izan zen ekitaldia aditu zuten lauhun lagun artean. Hamasei partaidek kantatu zuten eta bukaeran, partaide guztiek hainbat doinu ezagun kantatu zituzten elkarrekin.



# > H s l n k t n l n u k t u t r r k

### nts l n k

l n k m s t u u n r r y z z u h u u l k j u r l  
K u x k e u r z t z k o n g l l n f k z n n s t k l l k  
z u t n n t s l n k k e k n z n z z u

- 5 l n u k r n, z u r h r r e r k l z n r r k
- u r z k - f s k l z z k k .
- E r r a t e r r t s u n t r s r r r n k a - r n
- l h n z k s u t n r z n s u n .
- M u k r t s u n l n t t k z z y l n k s t o r k .
- M l u t s u n k r n l n .

7 t z u r l k u x r t h s z z n l n u k t u r r k  
l n k n .



www.ceriv.com

© n r + © U n n t F + © S M x l + © T r S M x t 7 5 + © C u t r n t V r l

> Zur t r k z u n u r l n t r z u

www.ceriv.com

**NAFARRAK  
RUR L ETXEA**

## MALERREKA

# Agorreta musika eskolako ikasleen arrakasta Arrasateko Akordeoi Lehiaketan

Amaia Iraola doneztebarra  
garaile eta Labaiengo Iñigo  
Estanga bigarren izan ziren

## ttipi-ttapa

Doneztebeko Amaia Iraola (15 urte) Arrasateko Akordeoi Lehiaketan «Varietés» kategorian lehenengo postua lortu du, eta bigarrena Beintza-Labaiengo Iñigo Estangarentzat izan da. «Varietés» kategoriak modalitate desberdinetako musika motak elkartzen ditu, ber-

tzeak bertze, jazz, folka, eta gaur eguneko musika orokorrean, beti ere soinu-joleen trebetasuna adierazteko helburuarekin. Amaiak txapela eta trofeoaz gain, 360 euroko saria lortu du.

Aurten, Arrasateko Akordeoi Lehiaketan barrerean, lehenengo aldiz antolatuta da «Varie-



ARTXIBOKOA

Iñaki Dieguez, Doneztebeko Agorreta Musika Eskolako akordeoi irakaslea bere ikasleekin. Urteetako lanak emaitzak eman ditu aurten Arrasateko lehiaketan eta Akordeoi jaialdian.

tés» lehiaketa. Guzira 200 soinu-jole elkartu ziren abenduko lehen aste hondarrean Arrasatean. «Varietés» jategorri adin guztietako zortzi partaide aurkeztu ziren. Partaideek derrigorrezko pieza bat jo behar zuten, bateria eta baxuaren laguntzaz, eta

beraiek hautatutako bi pieza. Bai Amaia, bai Iñigo, Zarautzen ospatuko den Akordeoi Astearen kontzertu batean parte hartzera gonbidatuak izan dira. Kontzertu horrek, bertzeak bertze, Joxan Goikoetxea, Manuel Sorzabal, Fran Idareta edota beraien

irakaslea den Iñaki Dieguez bilduko ditu.

## AKORDEOI JAIALDIAN URREZKO DOMINA

Bertzalde, Akordeoi Jaialdian, 12 urterainoko B kategorian, Doneztebeko Asier Otxandorenak Urrezko Domina irabazi du.



## Maria Segunda IRURETA INDART «Amatxi xarra»

Elgorriagan hil zen 2003ko azaroaren 24an

*Zure azken arnasa  
zure azken adioa  
bizitzaz xiprixindurik  
utzi duzu gure artean  
gaur eta betiko  
bihotzez maite eta  
bihotzez gogoratuko zaitugunontzat.*

**ZURE FAMILIA.**



Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

## ARESO

# Neguko festa egin zen abenduaren 7an

Mikel Olazabal pilotaria azpitxapeldun Nafarroako gazteen lau terdiko txapelketan

**Juana Mari SAIZAR**

Eguberri garaian aurkeztu den festa edo jaia abenduaren 7an neguko festa antolatu zuen Guraso Elkarteak.

Eguraldia lagun zela, trikitilari eta panderojoleak herriari buelta eman zioten. Bitartean,

plazan taloak erretzen eta dantzari eta pilotariak bere emanaldia eskainiz aritu ziren.

Herri bazkaria egin zen, axuria txilindron erara. Prestatzaileen artean, Mari Carmen Garmendia suertatu zen garaile. Ondotik, trikitixa



Argazkia: Juana Mari

**Kantaldi txundigarria eta ederra eskaini zuten Ansa ahizpek.**

txapelketa egin zen eta bukatzeko, Antsa ahizpen kantaldia. Txundigarria eta ederra suertatu zen. Han bildu zirenek ederki gozatu ahal izan zuten.

### **Mikel Olazabal azpitxapeldun**

Mikel Olazabal herriko pilotari gaztea, azpitxapeldun suertatu zen gazte mailako Nafarro-

ako lau terdiko txapelketan, Guillermo Mazo Memorialean. Labriten jokatu zen finalean 10-18 galdu zuen Iñaki Larraide lesakarraren kontra.

# BERTSO SAIOA

**BERAKO KULTUR ETXEAN**  
arratsaldeko 6retan

**2003.eko ABENDUAK 28**  
Igandea

**BERA nafarroa**  
antolatzailea:  
**Berako Euskara Batzordea**  
laguntzaileak:






**BERTSO SAIOA BERAKO**

Aitor Mendilluze  
Malalen Lujanola  
Iñatxe Ibarra  
Jon Mala  
Julen Zelatorra

Unai Elizasu gai jartzailea:

## GOIZUETA

# Orsa enpresa hasi da hainbat baserritako bideak galipotatzen

Abenduaren 20an Belate pilota txapelketaren finalak jokatu dira herrian

## Esteban AROTZENA

Orain dela aste batzuk, Orsari adjudikatu zizkion Udalak hainbat baserritako bide galipotatzeko lanak, ekonomikoki eskaintzarik onena izateaz gain (288.000 euroko aurrekontua 246.000 eurora jeisten zuen enpresa honek), Nafarroako Gobernuak agintzen zuen bezala aurten bertan lanak hastea ziurtatzen zuelako. Orsak bete du esandakoa eta lerro hauek idatzi ordurako, eginak zituen proiektuaren barruko kilometro batzuk, Attaborroko gaina bitartekoak hain zuzen. Honetaz gain, galipotatuko diren bideak honako hauek dira: telebistako errepetidoreetatik aurrera Alkainzurriain auzokoa; Domiñazpi eta Domiñakoa. Aitasemegi auzoan Tubenekobordako bidegurutzetik bi kilometro herri aldera; eta Benaisoroko bidegurutzetik Artantxuko atariraino; Rezolako bidea Kape-



ARGAZKIA: ESTEBAN

Elkartea gainezka eta giro ederra azaroaren 29ko zekor jatean.

roraino; eta azkenik, errepidetik Alduntzibordarako atakarainokoa.

Aipatutakoez gain, beste puskaren batzuk ere galipotatuko omen dira, aurrekontu guziaz, 288.000 euroak alegia, erabiltzeko asmoa baitu Udalak. Dirutza honen %60a Iruñetik etorririko da eta gainerakoa, jakina, herriak berak ordaindu beharko du. Aurten gozoko kanpaina hone-

atik kanpo gelditutako beste hainbat bide ere galipotatuko omen dira ondorengo urteetan, Nafarroako Gobernuak aurten bezalako laguntzarik ematen baldin bado. Horrelaxe esan zizun behintzat Herriko Etxeko obretako zinegotziak.


## Belate txapelketako finalak

Hurrengo larunbat

goizean, abenduak 20, Belatek antolatzen duen pilota txapelketako gure zonaldeko ligako finalak jokatu dira herrian. Bederatzi partida guztira, eta finalisten artean, goizuetar asko izanen dira.

## San Andres Eguna

San Andres Eguna ederki aski ospatu zuten eskolan azaroaren 27 eta 28an. Bertso saio-



## PERTSONAIA

Jon BARBERENA

## Xalto Sariko txapela Elizondora

Azaroaren 28an burutu zen Xanto Sariaren finala. Beti bezala, Goizuetak hartzen du Nafarroako gazteei zuzendutako bertso txapelketa honen finala. Umore Onan egindako saioan, Jon Barberena elizondarra suertatu zen txapel-dun eta Oskar Estanga azpitxapel-dun. Afalondoa bildu ziren bertsozaleek saio eder batekin gozatu ahal izan zuten.

ak, antzerkiak eta urteroko bertso-paper lehiaketak osatu zuten Xaltoren oroiemeko aurtengo egitaraua.

## Suhiltzaileei dirulaguntza

Herriko suhiltzaile boluntarioek 7.651 euroko dirulaguntza jasoko dute parkearen mantenimendurako eta materiala erosteko.

**ANSONEA** jatetxea

Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

**SAROB**  
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**d@**  
degust@rte

Delicatessen  
produktuak eta  
opariak

Tradizionala eta  
diseinuzkoa

Travesía Ametzia, 7  
31740 SANTESTEBAN  
Tlf/Fax: 948 61 51 30  
629 58 72 10  
huz@degustarte.com





# Landibar

ZENTRO KOMERTZIALA

© Dantxarinea (0034) 948 599 400

DANTXARINEAko  
**Landibar**  
IBARDINGo  
**Venta Peio** eta  
BEHOBIAKo  
**Marionnaud**-en

**USAIN GOXOEN TXOKOA**  
aurkituko duzu.

markarik ezagunenetan  
aukera zabala.

*Zatoz eta ikusi!*

ROCHAS  
CHRISTIAN DIOR  
BIOTHERM  
CLARINS  
CHANEL  
YVES SAINT LAURENT  
GUERLAN  
PACO RABANNE  
THIERRY MUGLER  
ARMANI

...



© Behobia (0034) 943 631011

M<sup>a</sup> Juncal Labandibar karrika, 13B

## VENTA PEIO

© Ibardin (0034) 948 630 719



*Euskal Herriko  
preziorik  
hoberenak*

Eguberri eta egun  
berezi hauetan  
gustoko opariak egin  
eta jasotzeko.



# Txirrista

Deskontu berexiak  
tenporadako arropatan

Elizagibela, 2 • DONEZTEBE • 948 450881



zorianak eta urte berri on!



Parrokia 11, DONEZTEBE • 948 45 01 12

*Artieda M.*

*Lentzeria  
Mertzzeria*

*Kanttonberri 2  
Bera  
Tel: 948 625 411*

**IGONE**  
papertegia • liburudenda  
Kanttonberri 4 • BERA • 948 630620

Urtarrilaren 3an  
egun osoa  
Trekis

**ARKUPE**  
Boxotegi • kafetegia

**Eguberri on!!**

IRURITA • Tfnoa.: 948 452 021  
ELIZONDO • Tfnoa.: 948 452 393

**BB** TALLERES  
**BIOK BAT**  
"BITXO" JUAN LARREGUI URRUTIA

Motozerra bat erosterakoan  
oparia izanen duzu

P.V.P.  
910,60 €

372

Santiago10, behea • ELIZONDO

**Promozioa**

Un chabazo amoldado  
por la compra de una  
Harpaguna 340, 350, 370  
4 385

jersey de lana con  
reforzado por la compra  
de una Harpaguna 372

**KOLOK**  
menaje denda

• SUKALDE ETA MAHAIRAKO  
TRESNERIA  
• OPARIAK

Hondarribia 4 • IRUN  
Tfnoa: 943 615 622

**TOUT POUR LA FETE**

- Jaiotzak.
- Eguberriko zuhaitzak eta dekorazioak.
- Baserritar jantziak.
- Ihauteiak.
- Kotiloiak.
- Su artifizialak

Rue de la Gare 13 • 64700 HENDAIA  
Tfnoa: 05 59 48 37 58

**IPINGI**  
Arropa eta konplementoak

eguberri on!

- konjuntokak
- berokiak
- jerseak
- kamisetak
- panderu eta butandak
- bitxiak.

Santiago, 65 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 560 930

5

**Ibarrola**  
Haurrendako arropa  
0-14 urte

Parrokia 6 • DONEZTEBE • 948 450 463

**ONGI PASA BESTAKI**  
**KOLOKAN**  
tlf 667717681  
DEKORAZIO  
ESTUDIOA

titulaturiko diseinari eta paisajista teknikari  
PROIEKTU ETA ERREFORMAK  
ETXE BIZITZA ETA  
LOKAL KOMERTZIALETAN

**OPARIAK**  
aitzari mexikarrak  
larrarak  
altonbrakko adroak  
koltzak  
edredoi nordikoak

iturlandeta karrika, 3  
31780 BERA

KOLOKAN KOLOKAN KOLOKAN KOLOKAN  
KOLOKAN KOLOKAN KOLOKAN KOLOKAN

Tel. 948 625 444

**FANTXIKE**  
Mertzena • Opanak • Lentzena  
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA

Ze abat jostatu badiren FantxiKen!

Jaime Urutia 15, ELIZONDO Tfnoa: 948 560 312

**Negu honetan zatoz Ostizera**

**CASA OSTIZ** **BUFF**

Parrokia, 17 • DONEZTEBE  
948 450 289

**MAITE**  
**ARROPADENDA**

bakeroak • kirol jantziak • puntuzko jertseak  
Merkatarien karrika, 7 • 948 450 879 • DONEZTEBE

**Guria**  
DROGERIA  
LURRINDENDA

Lurrinak, opariak, bisuteria...  
Altzate, 37 • BERA • 948 630 388

# MUEBLES AMETS

Iarunbat  
arratsaldetan  
irekia

4000 m<sup>2</sup> erakusketa

**Sarrera**  
**BERA**tik da  
Sastrin karrika,  
3.2 - 3.4 Alkaiaga  
**31789 LESAKA**  
Tfnua. 948 630 537  
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE  
WEB ORRIA  
[www.mueblesamets.com](http://www.mueblesamets.com)



*Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak*

## AUKERA HANDIAK



## Urte Zaharreko KOTILLOIA

Animatuenentzat Lenkonea jatetxeak ondotik eskaintzen dizuegun menu dotorea prestatu du. Ondotik, musikarekin hornitutako gau magikoa izanen da.

### Menua

- Txanpain frantzesak eta kanapeak
- Stxeke foie tarrina Pedro Ximenezen geléarekin eta laranja marmeladarekin lagundua.
- Lurrunetan egindako abakando edo bogavante xerratua termidor erara (trufa eta foierekin)
- Churra arrazako esneko bildotsaren milorria plantxatik pasatutako orburu edo alkatxofa freskuarekin.
- Urtezaharreko pastela bere 12 mahatsekin.
- Turroiak eta mazapanak
- Pico Cristobal kafea eta kopa
- Txanpain frantzesak afari osoan
- Ardoak: beltza, gorria eta txuria (Txurrieta)

Musika eta kotilloi-poltsa

PREZIOA: 126 e pertsonako

ERRESERBAK. Abenduaren 24a baino lehen Jatetxean  
(Tel.: 948 625542) Pertsonako 60 euroko seinalea.

*Berako telefonoaren azken  
hiru zenbakiak  
Eguberrietako zozketaren  
azken hiru berdinak  
dituenak Urtezaharreko  
bi afari dohain*

Itziaki Rodrigo

**Lenkonea**  
JATETxea

Foruen Plaza 2 • BERA  
tel.: 948 625 542  
faxes: 948 625 541



# Ameztieta

• Ostala • Jatetxea • Ostatura

Tfnoa: 948 450 028 • DONEZTEBE

Ameztiako langileok eskerrak eman nahi dizkiegu bezero guziei gurera etortzeagatik.

Zorionak eta Urte Berri On!

## Ostatura

**Bokatak eta pintxoak**  
**Bokatak eramateko**  
**948 450028**



**Asteburuetan etorri zaitez  
bokatak eta pintxoak dastatzera**

**TB digitalean futbol partiduak ikusten dituzun bitartean!!  
Larunbatetan izugarritzko martxa izanen duzu!!**

## Jatetxea

**LARUNBAT GAUERA KO**  
**Sagardotegiko menu berezia**

Entsalada  
Bakailua tortillan edo prexittua  
piper berdeekin  
Txuleta  
Gazta, intxaur eta  
etxeko menbrilloarekin  
Sagardoa  
Kafea

Prezioa: **17,50 €** B.E.Z a barne



## URTE ZAHARREKO AFARIAK

- *Urdai azpiko iberiarra tomatez eta olio z igurtzitako ogiarekin*
- *Marisko Salpikoia*
- *Garaiko kardo foierekin*
- *Baserriko oilaskoaren salda*
- *Legatz-solomoa txangurroz betea*
- *Azpixuna parrillan onddoekin*
- *Kafe biskuita*
- *Ardoa "Gran Feudo Crianza 99 Bodegas Chivite"*
- *Kafea, kopa eta puroa*
- *Zoriontasun mahatsak eta sorpresazko poltsa*

Prezioa: **49,50 €** B.E.Z a barne

Erreserbak egiteko deitu: **948 45 19 02** • 948 45 00 28



**LEITZA**

## Herriko gazteen arteko harremana sendotu asmoz sortu da Berpiztu

Ikurriñaren inguruan polemika artifiziaia sortu nahi dutela dio Aralarrek

**Mikel ILLARREGI**

Duela aste batzuk herriko gazteak biltzen hasi ziren berauen arteko harremana sendotzeko asmoz. Ekimen ezberdinak bultzatu nahi dituzte eta modu horretan komunikazioa bultzatzea dute helburu. Abenduaren 5ean herriko plazan izan zuten lehen agerraldi eta argazkia. Alde batetik gazte orori egitasmoaren berri zabaldu nahi izan zuten eta bestetik aipaturiko ekimenetan hasi. Hala, futbolin partidak zituzten antolaturik, gero taldearen aurkezpena eta bukaeran argazkia. Lokalaren beharra garbi azaldu zuten, baina bitartean, ondoren bezala, ekimenak aurrera eramane nahi dituzte, hala nola, kontzertuak, hitzaldiak, tailerrak...

Dagoeneko udalari gutun bat igorri diote beraien asmoa azalduz eta Atakabeltzan izan behar duten tokia eskatuz. Orain arte bileretan hogeiren bat lagun bildu badira, aurkezpen egunean hirurogei baino gehiago baziren. Euren agitasmoa, 15 eta 25 urteko gazteentzat zuzenduta dago.

### Noraino ikurrinarekin?

Honez gero denok aditu dugu "Leitzeko ikurrinaren" inguruan dabilzkiten kontuak. Ikurrinaren inguruko gora-



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

### Atakabeltzan izan behar duten tokia eskatu dute gazteak.

beherak oso aspaldikoak badira ere, azkenaldion geratutakoa, irailan du hasiera berria. Alkateak Atakabeltzan ikurrina jartzekoaren aldeko ebazpena kalera-tu ondoren (irailaren 22an), Toki Administrazioiko kontselariak, Nafarroako ikurren legea aipatuz, erresoluzioa bertan behera utz dezaten agindu zion udalari.

Bestetik Nafarroako eguna hurbiltzen zela eta, gutun bat igorri zion Catalan jaunak alkateari, aipaturiko "ikurren legeak" dioena gogoraziz eta bete ditzala eskatuz. Alkateak "inpugnazioa" errekurritu egin du eta honekin batera beste udal taldeekin (EA, Larrain eta Aralar) bilera egin du egoera aztertzeko.

Bere taldeak, Aralar taldeak, prentsa ohar

bat kaleratu du Nafarroako Gobernuak "artifizialki piztu duen ika mika" salatuz. Leitzan ikurrina kentzea herriaren nahiaren kontra jotzea izanen litzatekeela esanez, "arazo hau beste batzuk estaltzeko erabiltzen ditu gobernua" adierazi dute. "Nafarren etorkizuna, bere identitate plurikulturala eta soziala kontutan harturik" dira leitzarron kezkek, "eta ez Atakabeltzan jarrita dagoen ikurrina".

### Mendi irteera Piriniotara

Igande honetan mendi irteera izanen da Pirineotako Vall d'Echo, Oza Oihanean. Elurra-aren arabera erabakiko da nora joan. Dena den autobus txikia betetzeko adina jende apuntatuz gero travesia egingen da hemendik Zuriza al-

dera. Irteera bezperan, larunbatean, egingen da plazatik.

### Zineman atsedean

Zineko funtzionamendua eramaten dutenek,

**FLASH**

### Hilherria, "azken tasa"

"Udal hilerriaren erabilera eta hura erabiltzeko eta hartan zerbitzuak egiteko eskubide eta tasak arautzen dituen ordenantza" onartu zuen udalak azkeneko batzar orokorrean. Titulo luzea duen onaturiko ordenantza honetan, bertako administrazioa, zuzendaritza eta zaintza udalari dagokiola gogorazten du. Bestetik hauek zein ahalmen dakarzen aipatzen ditu eta era berean, zer nolako betebeharrak eskatzen dituen; langileak, baldintzak... Hilotzak zenbat denboratan behar duten panteoietan, nitxotan nahiz lurpean, zehazten du. Hauetan nolabaiteko aldaketaren bat balego, hau, epaile batek emaniko baime naz behar du izan. Tasei dagokionez, lurpean edo panteonean ehorz-teak 156,26 euro. Nitxoan 112,51 euro. Hobe-rik ateratzea, eskatzen bada, 93,76 euro.

Ihauteriak igaro arte eten dituzte emanaldiak.



*Egubenni zoriotsuak eta  
Ute Benni On opa die  
langile eta bezeroei*

**Ofiziala eta laguntzailea behar dira berehala lanean hasteko**

## BAZTAN

# Kultur ekitaldiak Baztandarren Biltzarra eta Mendigoizaleen eskutik

Eguberrietako Kulturaldia prestatu dute

## ttipi-ttapa

Baztandarren Biltzarra Elkarteak eta Baztango Mendigoizaleak taldeak Eguberrien inguruan zenbait kultur jarduera prestatu dituzte. Lehendabizi Erdiz Bizirik izeneko mendi itzulia egin zuten azaroaren 30ean eta abenduaren 13an Gozategi taldearen kontzertua antolatu zuten Antxitonean. Hemendik aitzin, abenduaren 20 eta 21ean, hogeita lau orduko futbito txapelketa prestatu dute. Bertan izen emateko edo informazioa jasotzeko 948 581279 telefonora deitu behar da. Abenduaren 22an, Jon Belokiren «Jainkosen altzoan» diapositiba emanaldia eskainiko da Elizondoko Arizkunenean, 20:00etan.

Abenduaren 27an, «Kutsidazu bidea Ixabel» antzezlanak ikusgai izanen da Elizondoko frontoian 19:00etan eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, berogailuak



ARGAZKIA: IRUNE ETXEBERRIA

Arraiozko Ariztia elkartearen herritarrek egindako eskulanak, laboreak, margolanak eta bertze hainbat gauza ikusteko modua izan zuten abendu hasieran egindako erakusketan. Erakusketa honetaz gain bertze hainbat ekitaldi izan zituzten Kultur Astearen barnean.

ere paratuko dituzte. Abenduaren 29an, Patxi Lasarteren «Euskadi-Txina bizikletaz» diapositiba emanaldia izanen da Elizondoko Arizkunenean 20:00etan. Heldu den urteko urtarilaren 2an, azkenik,

«Txina, dragoia ernatzen delarik» diapositiba emanaldia eta «Hilloak Txinan» liburuaren aurkezpena egingen dute Asier Gogortza eta Jon Abril beratarrek Elizondoko Arizkunenean, 20:00etan.

Baztandarren Biltzarra eta Baztango Mendigoizaleek Erdizen Aldeko Biltzarra, EHNE sindikatua, Antxitonea Trinketea eta Diaro de Noticias egunkariaren laguntza izan dute ekitaldi hauek antolatzeko.

## FLASH

## Gurasoen Eskola Lekarozko Institutuan

Lekarozko Institutuko Guraso Elkarteak, Elizondoko Osasun Zentroaren laguntzarekin, ikastetxe honetako gurasoendako eskola gauzatu nahi du. Eskola honen duela hiru ikasturte izan zuten esperientzia «arras positiboa» izan zen eta aurten hori berreskuratu nahi da. Bina orduko birtz saio egingen dira, 14:00etatik 18:00etara, urtarilaren 14 eta 28an, otsailaren 11n eta martxoaren 3 eta 17an, Lekarozko Irakasleen Laguntza Zentroan (CAP). Bertan izena eman nahi duten gurasoek abenduaren 20a arteko epea izanen dute eta horretarako institutuko idazkaritzara jo behar dute.

## Jorge Oteiza Museoa

Jorge Oteiza Museo Etnografikoari laguntzeko hitzarmena sinatu zuten Nafarroako Gobernuo Kultura eta Turismo kontseilariak eta baleko alkateak. Udala mantentzen menduaz eta garbiketaz arduratuko da eta Iruñetik 6.385,62 euroko laguntza emanen da aurten. Nafarroako Sa-rean sartuko da Museo Etnografikoa.

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostiatua  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte  
ELIZONDO  
© 948 581807 • 948 581853

**ORDOKI LIKOREAK**

**ERRETEGIA**

Tel.: 948453410  
Fax: 948453378  
ARIZKUN

Parrilan egindako haragi eta arrainak

**ONASKA**

**ERRETEGIA**

Euskal sukaldaritzan  
Arrain eta haragia brasan

Bagordiko bidean • ELBETE  
© 948 45 20 88



## BAZTAN

# Aldudeko errepedearen kontra azaldu da «Belaun aldea Bizirik!»

Abenduaren 11n egin zuen taldeak aurkezpen ekitaldia



## PERTSONAIA

Juan Felipe FRANCHEZ

### Iruritarrek 50 urte bete ditu apezgoan

1928ko otsailaren 3an sortu zen Irurita-ko Zapatilenean Juan Felipe Franchez. Hamahiru urterekin sartu zen seminarioan eta 1953ko ekainaren 28an apeztu zen. Beraz, aurten 50 urte bete ditu apeza lanetan eta omenaldien txanda ailegatu zaio. Azkeneko 25 urte baino gehiago Azpilkueta eta Amaiurren ari da apez-lana betetzen. Azpilkuetarrek ekainaren 29an omendu zuten eta Amaiurko herriak abenduaren 6an egin zion omenaldia. Juan Mari Aleman Amaiurko alkateak makila eskaini zion herritar guzientzako izenean. Juan Felipek erran zuenez, «ez zidaten deus eman beharrik, baina aunitz eskertzen diet, beti atsegina baita jendeak maitatzea».

### ttipi-ttapa

Elizondo-Aldude lotuko dituen errepede egitasmoaren aitzinean hausnarketa plazaratu zuen abenduaren 11n Belaun aldea Bizirik! taldeak. Talde honen us-tez egitasmoa «*hutsetik berria da, ez da lehenago dagoen bide baten gainean egina, ez da deusen hobekuntza, ez moldatzea, errepede berria da egin nahi dena. Alta, Baztango Udalak eta Nafarroako Gobernuak izenpetutako hitzarmenean, bide baten hobekuntza eta moldatzea da onartu dena. Baina honek paradoxa bat sortzen du, inguru horretan biderik ez dagoen neurrian, ez baita halakorik egiten ahal*». Errepede egitasmoa Bailleiko lepotik abiatuta, Basegiko oihan eta mal-karrean barna Ballabarrango erreka zokoa gurutzatuz, Ixtiko lepora aterako da; eta lepo horretatik, Larrabeltz eta Hargibel mendien hegaletan dauden paga-



ARGAZKIA: TOTU ITURRALDE

**Belaun aldea Bizirik! taldeak prentsaurrekoa eskaini zuen abenduaren 11n Arizkunenean, Elizondo-Aldude errepedearen egitasmoaren aurkako jarrera agertarazteko.**

dietan gaindi, Iruritabarren-go eta Zaguako erreka zokoak gurutzatuko ditu, Belaungo leporat ateratzeko eta ondotik, Alduderat jausteko. Gaurgero, egitasmoaren idazketa eta lanen zuzendaritza lanak esleitu dituzte, Belaun aldea Bizirik! taldearen ustez, «*onarpen formal*

*ez ofizialik ez duen egitasmo batendako, horrek erran nahi duen sos publikoen erabilera bigarregabearekin*».

Hitzarmenean ez dela azterketa edo ikerketa bakar bat ere aipatzen azpimarratu du taldeak, «*ez da inongo daturik ematen, ez diagnosirik aurkezten, ema-*

*ten diren arrazoiak ez dute inongo oinarri zientifikorik, eta ondorioz, ez dute errepede berri hoden beharra justifikatzen*». Arrazoi hauetan eta bertze batzuetan oinarrituz, egitasmoa alde batean uzteko galdedin dio Belaun aldea Bizirik! taldeak Baztango Udalari.

**asnap.me**  
 • GIZARTE ETA LAN ARLOA  
 • KONTABLE-FISKALA  
 • JURIDIKO-MERKANTILA

• LANGILE AUTONOMOAK  
 - Gortak  
 - Elektrizitatea  
 - Eraikuntza  
 - Igehseroak...

• NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK  
 • ENPRESA GUZIAK

Nominak eta Aseguro Sozialak  
 Kontabilitateak  
 IVA eta IRPF  
 Gortak asessoramendua  
 Diru-laguntza ezberdinak  
 Sozietateen inpostuak  
 Errenta atzerpenak

**DONOSTIA**  
 Itza Semerik, 4. Solairu  
 Tfno: 948 411822 Tfno/Fax: 948 411418  
 info@asnap.me

**ELIZONDO**  
 Sarriaga, 51. Solairu  
 Tfno/Fax: 948 580 586  
 elizondo@asnap.me

**LEZUZA**  
 Sarriaga, 1. Solairu  
 Tfno: 948 262208 Tfno/Fax: 948 262144  
 lezuza@asnap.me

*Eskisaroi jatetxea*  
 Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
**ELIZONDO**

**ARMUA**  
**Jatetxea**  
 Zugarramurdiko karretera 3. Km  
 ☎ 948 599 131 - URDAZUBI

**Gierreseta**  
**OSTATU - JATETXEA**  
 Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa  
 Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

SARA

## Olhain ikastolak biltzar nagusia egin zuen azaroaren 23an

### Saski eta Xan

Olhain ikastolak biltzar nagusia azaroaren 23an egin zuen. 15 bat gurasok parte hartu zuten, bai eta herriko auzapezak. Lehenik kontuak onartuak izan ziren eta joan den ikasturtean egindakoak aipatu ziren. Hala nola Sarako bestetako jardunaldiak, Olentzero, lhauteriak, ate idekiak... Ondotik gurasoak etorkizunari begira jarri ziren, proiektuak eta egin beharrak aipatuz. Ikastolako arduradunek etorkizuna baikorki ikusten dute. Momentuan haurren kopurua 19tan da baina ikasturtea finitzean 24raino upatuko da eta heldu den ikasturtea 30 haurrekin hasiko dute. Aurtengo berrikuntza nagusia CPko klase bat idekitzea izan da. 6 haur dira lehen urte horretan. Hemendik goiti, CE2 arte, urte guziz klase berri bat idekitzea izanen da helburu nagusietariko bat. Anartean helburu xumeago batzuk finkatu dituzte. Berria egunkarian parte hartzea, Olentzeroko besta, Antzerkiak, Atauneko eskolekin harremanak sortaraztea, urte hondarreko ateraldia eta bertze jardunaldi ainitz.

### Errugbia

Sarako taldeak bigarren fasearen zain da. Lehen fasean kasik matematika guziak galdu eta, bat baizik, basurdeek ez du-

te deus espero lehen fase huntatik. Azken matematika berriz galdu zuten etxean Kanboren aurka 9 eta 13. Ez zuten matematika txarrik egin baina jokalaria gakodun batzuen eskasa sentitu zen, berreziki alboko xakeetan.

### Esku balona

Sarako esku baloneko taldeak 10 urte beteko ditu aurten. Horren kari afaria antolatzen du abenduaren 13an Omordiako gelan. Apeiritifa Sarako Urtxintxak elkarteak eskainiko du. Afaria, aldiz, 20 euro pagatu beharko da kopa eta kafearekin.

### Marrazkiak

Eguberrietako, turismo bulegoak marrazki txapelketa bat antolatu-



ko du haurrentzat. Marrazkiaren gaia eguberri buruz izan beharko du edo olentzerori buruz. Partehartzaileek marrazkiaren gibelego aldean deitura, izena, adina, ikasgela eta etxeko telefonoa eman beharko dituzte. Marrazkiak abenduaren 17a baino lehen turismo bulegoan egon beharko dute. Marrazki hoberekin sarituak izanen dira. Obra guziak Turismo Bulegoko gelan ikusten ahalko dira bakan-tza denboran.



ARGAZKIAK: XAN

**Momentuan haurren kopurua 19tan da Olhain ikastolan, baina ikasturtea finitzean 24raino upatuko da eta heldu den ikasturtea 30 haurrekin hasiko dute.**

**Ahatekietan adituak eta arituak**

Martiko S.A. Pol. Zelaia, s/n. 31780 Bera, Navarra  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

HERRIKO ETXEO EDANTECIA  
CAFE DE LA MAIRIE  
MAIXAN ETA VÉRONIQUE  
SARA • TEL 0559542519

**ZOANSA**

SALMENTA  
MARKA GUZIEN KONPONKETA  
Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05  
Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA (Sarrera Beratik)

## URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

# Europako proiektu batean parte hartuko dute eskolako ikasle batzuk

Courougnon margolariaren lanak ikusgai daude Urdazubiko klaustroan

### Margari eta Koro

Eskolako 4. eta 5. mailako ikasleei Proiektu Europear batetan parte hartzeko aukera eskeini zaie. Proiektu hau Frantsesa hizkuntza lantzen duten eskoletara zuzendua da, eta horren arabera Iparraldeko eskola batekin harremanak sortu behar dira. Kasu honetan Senpereko eskolako ikasleekin izanen da, eta harremanatzeko modua dantza eta hizkuntzaren bitartez izanen da. Dantzari dagokionez, Miarritzeko "Eskola Koreografiko"ak urte osorako lan bat proposatua du, haien partetik dantza irakasle bat eskolara bidalitz. Horretaz gain, zenbait ateraldi ere proposatzen dira, eta lehenbizikoa jadanik egi-



ARTXIBOKOA

**Aitzineko erakusketan izandako arrakasta ikusi ondotik, Courougnon margolariaren lanak ikusgai izanen dira Urdazubiko monastegiko klaustroan heldu den urteko ilbeltza-  
ren 18a arte.**

na da: Ikasleak Miarritzen egon ziren Miarritzeo Balet Koreografikoak eskeintzen zuen "La cigarra" antzez-dantza ikusten.

### Erakusketa Urdazubiko klaustroan

Ez aspaldi egin zen bezala, eta arrakasta ikusi ondoren, Cou-

rougnon margolariak Urdazubiko Monastegiko klaustroan erakusketa bat antolatu du. Aurkezten diren margoak 1962 eta 2003 urte bi-

tartean eginak daude, eta erakusketak "Alaitasuna" du izena. Abenduaren 4etik urtarrilaren 18raino egonen da irekita, goizeko 11:30tatik arratsaldeko 17:30tara.

### Antzezlana Zugarramurdirin

Akelarre elkarteak antolatutako eta "Marixan ostatua" eta "Kisulabe elkarte"en laguntzakin, abenduaren 14ean Berako "Emaizta" antzerki taldeak "La herencia de Tia Cornelia" antzezlana eskeini zuen. Antzerki talde honek duen berezitasuna, partaide guztiak emakumeak direla da. Hoieta-ko bat, Inma Uranga, Zugarramurdikoa da, eta horregatik ere herriari lan hau ikusteko nahia erakutsia zuen.



## Maderas GOMEN

- Era guzietako atek, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

## ANZABAL AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

## BURKAITZEA

ostatu  
erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.  
☎ 948 599280 • URDAZUBI

## gaztelu

### iturgintza

Kalefakzioa  
Saneamendua  
Gasa

☎ 948 510086 / 510156

fax: 948 610856

LEITZA

## AZKAIN

# Olentzero heldu da gure herrirat abenduaren 20an

## Angela eta Xamo

Olentzero etorriko da gure herrirat abenduaren 20an, 5ak eta erditan, iluntzearekin. Urte guziz bezala, herriko haur guziek Olentzeroren bisita ospatuko dute, haren aireak kantatuz. Herriko karriketan usaia ibilaldia egina-raziko diote gomitari, Azkaindar guziek urtean zehar herrirat aldi bat bakarrik etortzen dena ikus dezaten.

Bainan Olentzeroren etorria igurikatzean, gan den urtean egina zen bezala, Nafarroako Kulkari elkarte etorriko da herri-jokoak haurrierakustera. Hala nola baserriko joko tradizionalen inguruan, lasto altxaketa, hankapaloak, lokotx bilketa, eskuorga eta bertze motako jokoetan parte hartzen ahalko dute herriko haurrek.

Gero, desfilekat gan aintzin, Elgarrekin eta Altza lili taldeek krakada bateskainiko dute Bil tokin. Olentzerorekin ibilaldia egin eta, egunean parte hartuko duten



Meza ondoren, aperitifaren tenoriar elgarretaratu dira Bil tokin bazkaltiarak.

helduek gomituak izanen dira Plazan ostatuan arratseko poteoa hasteko.

## Bihotzen ohoretan

Gan den hazilaren 30an, igandearekin, herriko etxeak bazkari bat antolatu du azkaingo elkarrean bihotzen ohoretan. Eguna horren baina, urtean zehar sozial, kultur edo kirol gertakariak proposatzen dituzten jendeen lana ospatu nahi zuten herriko hautetsiek. Eta egia

erran, denek badakigu ez zela orain arte hola-ko omenaldi bat sekulan gertatu gure herrian.

Mezaren ondoren, aperitifaren tenoriar elgarretaratu dira Bil tokin bazkaltiarak. Gero, Ikastolako Erentabil elkarteak egindako bazkariaren inguruan momentu goxo bat pasatu dugu, Firmin eta Xumai bertsu batzu botatuz, Martintxok ere bizpahiru kanta eskainiz, arratsalde guziaz Panpi Larduek eta bere musikariak alaiturik.

Ororen aintzinean lan egiten duten bihotzonek bai ta ere itzalian obratzen dutenek elgar biltzeko parada izan dute, urtean behin bederen. Egun horren ondorioa ikusirik, bazkaltiar gehienek erran dute entsegu hori urtero luzatu beharko dela, baina azken gauza hau ez baita bihotzen eskuetan, millesker, beraz, herriko etxeari...

## Martintxo

Gan den abenduaren 12an ostiralarekin,

Martintxok bere urteko azken gualdia antolatzen du Bidegurutzea ostatuan. Hitz ordu honen kari, Olentzeroren arno autaketa eginen da, lehen egiten zen bezala. Olentzero etxerat etortzen zelarik, oparriak uzten zituen arno baso bat supazter ondoan atsematen balin bazuen bakarrik. Batzuek emendatzen dute ere arnoa ona ateratzen balin bada, oparri pullitago bat uzten zuela... Beraz, gure ohidu zaharrak atxiki balin baditugu, badakigu zer egin heldu den 12an... aitzaki ederra! Eta bixtan da, gualdi hontan kantatzeko parada izanen duzue, bai Olentzeroren kantak, bai ta usaiajokoak.



## BAZTAN

### ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



## SENPERE

# Ormako langileen abokatak salaketa bat presentatu du enpresako buruaren kontra

J-B Etxeberri uste du Angelinik iruzurra egin duela Orma hestea nahi baitzuen

### Franc DOLOSOR

Jean-Baptiste Etxeberri, Ormako langileen abokatak salaketa bat presentatu du enpresa huntako nagusiaren kontra. Azkenean, Orma hetsiko da eta 63 langile kanpo emanen dituzte. Orma likidazio judizialean ezarri zuen gan den abenduaren 8an Baionako merkataritza auzitegiak. Langileen ordezkariak berak horixe galdetu zuen ez baitzen nehor agertu enpresa berriz abiarazteko. Langileek osatuko luketen kooperatibaren ideia ere ez zen gauzatu azkenean. Etxeberri abokatak uste du Angelini Ormako buruak iruzurra egin duela, has-tapenetik lantegi hori hestea nahiago zuelakotz bere bertze enpresak salbatzeko gisan. Orma hilez Angelini lantegiaren burua salbatu dute. Biek harreman zuzena zuten, Angelini Ormaren hornitzaile eta

kliente bakarra zelakotz.

Azken auzian, beren duitasuna erakutsi zuten langileek azken memeturaino lanean aritu direlako. Angelini nagusia aldiz ez zen auzian agertu ere egin. Ormaren hestea golpe gogor berri bat da Senpereko ekonomiarentzat. Duela lau urte Yplon kosmetika lantegiak bere ateak hetsi zituen. Desindustrializazio hunek gure ekonomiaren ge-roa iluntzen du.

### Suhiltzaileek mende erdi bete dute lanean

Mende erdi bat ber-tzeen zerbitzuko. Hori da gure su-hiltzaileek hazilaren 30ean ospatu zutena. Urtemuga be-rezi huntan, lehen su-hiltzaileak ohoratu zituzten eta omenaldi bat egin zitzaizoten 1958ean lanean hil ziren bi su-hiltzaile zeneri. 50 ur-tez aldaketa ainiz eza-gutu dute su-hiltzaileek.

JP Irabolak manatzen zituen 12 gizonen hasi zuten lana 33 su-hiltzaileek eta bi medikuk segitzen dute gaur. Has-tapenean, su-hiltzaileak pilota plaza ondoan eraiki zen garaje batean kokatuak ziren. 1982az geroz Jean-Jo-seph Jorajuriaren ardu-rapean kaserna berri ba-tean biltzen dira 33 gi-zon eta bi mediku.

Lehen urteetan, 25 ateraldi segurtatzen zituzten urtero Senpereko su hiltzaileek. Gaur-ko egunean, 380 egiten dituzte. Lehen ere alta, lan haundia egiten zu-ten. Sua hiltzeko hodi-



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**Aurten 75 eta 65 urte bete dituzten senperarren elgarretaratzea.**

rik ez zuten lehenago eta palak baliatzen zituzten. Keaktraba haundiak sortzen zituela go-goan dute denek. Su hiltzaile ohiak oroitzen di-ra gaitzeko lana izan zu-tela 1963ko ormateekin.

20 urte berantago, 1983an aldiz, urak ate-ratu ziren eta desma-siak haundiak izan zi-ren. Urdazurialdean gal-deak alde guzietatik izan ziren eta 7 lagunek bi-zia galdu zuten.







**Inportaziozko leben kalitateko bakailu gazitua  
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550



**bentamiguel**  
denak, jantzerak eta osaketa

**Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran**

Taldeko  
Ikasleak  
Jantzerak  
Urdazurialdean

**Ibardingo Lepoa • ☎ 948 631209**

## BERTIZ

# Bertizko Merkatarien Elkarteko zuzendaritza berria aukeratu dute

Urtarrilaren 8an egingen dute Eguberrietako zozketa

## ttipi-ttapa

Bertizko Merkatarien Elkarteak zuzendaritza batzorde berria aukeratu du. Elizondoko Artesana okindegiko Lourdes Leiza izanen da lehendakaria, Berako Expert-Bortziriak dendako Pilar Lizardi lehendakari ordea, Doneztebeko Asnapymeko Jose Luis Mayo idazkaria eta Doneztebeko Ostiz Etxeko Carlos Ostiz eta Berako Expert-Bortziriak dendako Javier Leiza bokalak.

Batzorde berri honen helburu nagusia elkarrearen ekintzak indartzea izanen da.

Honela, dagoen kompetentzia ikusita, elkar-teari behar beharrezkoa iruditzen zaio formakuntza eskaintzea, ekonomikoki aurrezteko



ARGAZKIA: ONDIKOL

Lourdes Leiza da Bertizko Merkatarien Elkarteko lehendakari berria.

modu garrantzitsua den merkataritza txartela indartzea, eta laister jakinaraziko diren hainbat ekintza antolatzea. Aldi berean, eskualdeko komertzioen beharrak eta proposamenak ezagutu nahi dira.

Ibilbide berri honetan, Bertizko Merkataritza Elkarteak ohiko Eguberrietako zozketa martxan jarria du. 1000 euroko erosketa bono bat zozketatuko du, urtarrilaren 22a baino lehen arratsalde batez elkar-

teko dendetan gastatzeko. Zozketa urtarrilaren 8an egingen da eta irabazlea agertzen ez bada bigarren zozketa urtarrilaren 23an egingen da eta otsailaren 6a baino lehen gastatu beharko da.

## SUNBILLA

## Sunbillako Ulibeltza elkarteko mus txapelketaren finalak azaroaren 29an jokatu ziren

## ttipi-ttapa

